STM

San Telmo Museoa

# *Heriotza. Ante la muerte* erakusketa ikusteko azken astea

## *Erakusketa maiatzaren 26an amaituko da eta jarduera egitaraua ostegun honetako mahai-inguruak itxiko du: zahartzearen inguruan arituko dira filosofiaren eta zientziaren ikuspegitik María Blasco eta Antonio Diéguez*

*Heriotza. Ante la muerte*, San Telmo Museoak eta Deustuko Unibertsitateko José Ángel Achón katedradunak elkarrekin komisariatutako erakusketa, azken astean sartu da; izan ere, maiatzaren 26a izango da ikusteko azken eguna. Maiatzaren 19ra arteko datuen arabera, erakusketak 16.000 bisitatik gora izan ditu.

Erakusketaren helburua da, alde batetik, gizakiak heriotzari aurre egiteko izan dituen eta dituen moduen berri ematea, eta, bestetik, heriotzaren inguruko tabua haustea, horretaz hitz egiteko bidea emanez. Horretarako, erakusketa sei ataletan antolatuta dago, jarrera horiek kontuan hartzen dituztenak: Irudikatu, Beldurra, Errituak, Zentzua bilatzea, Heriotzatik itzultzea eta Utopiak. Horiek jorratzeko, munduko kultur ezberdinetan jatorria duten askotariko objektuak daude: errituekin, sinesmenekin edo ohiturekin lotutakoak; argazkiak; dokumentuak; ikus-entzunezkoak; koadroak; komikiak; eta abar.

12544n I

### Zahartzaroari buruzko mahai-ingurua, jarduera eskaintza ixteko

Erakusketa zabaldu zenetik museoak jarduera ugari antolatu ditu heriotzaz ikuspegi eta errealitate ezberdinetatik hitz egiteko helburuarekin, publikoaren aldetik harrera oso ona eduki dutenak. Aste honetan izango da horien artean azkena. Zahartzaroari buruz arituko dira, zientziaren eta filosofiaren ikuspegitik, Antonio Diéguez eta María Blasco:

*¿Futuro sin envejecimiento ni muerte? Conversación entre ciencia y filosofía*; Antonio Diéguez, María Blasco
Maiatzak 23, 19:00, gaztelaniaz
Ekitaldi aretoan, sarrera librearekin lekuak bete arte

Zahartzea eta zahartzeari lotutako gaitasunen galera saihestearekin hasten da hilezkortasunaren bilaketa. Zienziaren eta filosofiaren arteko elkarrizketa bat izango da, zientziaren eta teknologiaren aldetik zer motatako aurrerapausoak espero ditzakegun ulertzeko. María Blascoren eta haren taldearen ikerketak zahartzearen kausak aztertzen ditu, bereziki telomeroen laburtzea, eta horrek gaixotasunarekin duen harremana. Transhumanismoak heriotzarik gabeko etorkizun bati buruz egindako promesak aztertzeaz arduratzen da Antonio Diéguez filosofoa.

Antonio Diéguez, Malagako Unibertsitateko Logika eta Zientziaren Filosofiako katedraduna.
María Blasco, Centro Nacional de Investigaciones Oncológicas-eko zuzendaria.
Moderatzailea: Arantza Etxeberria, EHUko Logika eta Zientziaren Filosofiaren Saileko zuzendaria.

Horrez gain, erakusketa bisita gidatuarekin ikusteko aukerak egongo dira aste honetan: astearteean eta larunbatean, 11:00etan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz. Bisita gidatuak doakoak dira, museoko sarrera eskuratuta.

**SAN TELMO MUSEOA**
Zuloaga plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
**T.** (0034) 943 481 580 **E.** santelmo@donostia.eus
**www.santelmomuseoa.eus**

STM

San Telmo Museoa

# Últimos días para visitar la exposición *Heriotza. Ante la muerte*

## *La exposición finaliza el 26 de mayo y la programación de actividades vinculada la cerrará la mesa redonda de este jueves: María Blasco y Antonio Diéguez hablarán sobre la vejez desde el punto de vista de la filosofía y la ciencia*

*Heriotza. Ante la muerte*, la exposición comisariada por San Telmo Museoa y el catedrático de la Universidad de Deusto José Ángel Achón, ha entrado en la última semana, ya que se cerrará este domingo, 26 de mayo. Según los datos a 19 de mayo, la exposición ha recibido más de 16.000 visitas.

El objetivo de la exposición es, por un lado, dar a conocer actitudes con las que el ser humano se ha enfrentado y se enfrenta a la muerte, y por otro, romper el tabú de la muerte creando espacios para hablar del tema. Se estructura en seis apartados - Representar, Miedo, Ritual, Búsqueda de sentido, Volver de la muerte y Utopías – y reúne piezas procedentes de distintas culturas: objetos relacionados con ritos, creencias y costumbres; fotografías; documentos; audiovisuales; cuadros; cómics; etc.

12544n I

**Una mesa redonda sobre la vejez cerrará el programa de actividades**

Desde que se inauguró la exposición, el museo ha organizado diversas actividades para tratar el tema de la muerte desde diferentes puntos de vista y realidades, actividades que han tenido buena aceptación por parte del público. Esta semana tendrá lugar la última, en la que Antonio Diéguez y María Blasco hablarán sobre la vejez desde la ciencia y la filosofía:

*¿Futuro sin envejecimiento ni muerte? Conversación entre ciencia y filosofía*; Antonio Diéguez, María Blasco
23 de mayo, 19:00, en castellano
En el Salón de Actos, con entrada libre hasta completar aforo

La búsqueda de la inmortalidad empieza por evitar el envejecimiento y la pérdida de facultades asociada al mismo. Una conversación entre la ciencia y la filosofía para entender qué tipo de avances podemos esperar de la ciencia y tecnología. La investigación de María Blasco y su grupo trata sobre las causas del envejecimiento, en especial el acortamiento de los telómeros, y su relación con las enfermedades. El filósofo Antonio Diéguez se ocupa de analizar las promesas elaboradas por el transhumanismo sobre un futuro sin muerte.

Antonio Diéguez, catedrático de Lógica y Filosofía de la Ciencia de la Universidad de Málaga.
María Blasco, directora del Centro Nacional de Investigaciones Oncológicas (CNIO).
Moderadora Arantza Etxeberria, directora del Departamento de Lógica y Filosofía de la Ciencia de la UPV.

Además de la mesa redonda esta semana también habrá visitas guiadas el martes y sábado, a las 11:00 en euskera y a las 18:00 en castellano. Las visitas guiadas son gratuitas, con la entrada al museo.